



INFORMAZIO OHARRA

Hamabi erakundek parte hartu dute Eusko Ikaskuntzak eta Asturiasek bultzatutako ekonomia berri baten aldeko sarearen lehenengo bileran

- *Eratze-saioak epe ertainerako lan-konpromisoak eta -helburuak zehazten ditu, herri txikiak lurraldearen kudeatzaile gisa berreskuratuko dituzten eredu berriak sustatzeko*
- *Atxikitako erakundeak Asturias, Galizia, Katalunia, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Aragoi, Andaluzia, Kanariak, Portugal eta Europako hegoaldeko eremu huts batzuetatik datoz.*

Donostia, 2021eko martxoak 17. Eusko Ikaskuntzak eta Asturiasko Gobernuak, Erronka Demografikorako komisionatuaren bidez, herri txikientzako ekonomia berri baten aldeko erakundearen sarearen lehen bilera egin dute. Eratzeko saioa telematikoki egin da, eta hamabi erakundek parte hartu dute. Guztien artean herri txikiak lurraldeko kudeaketa-unitate gisa berreskuratuko dituzten garapen-ereduak bultzatzeko lanean arituko dira.

Pasa den maiatzean erakunde sustatzaileek dokumentu bat sinatu zuten herrietan tokiko ekonomiak, ekonomia -agroekologiko eta -dibertsifikatuen aldeko ekintzak bultzatzeko Asmoa da landa-eremuetan eredu gisa nagusi izan zen ondasunen eta baliabideen kudeaketa komunitariora itzultzea, eta kudeaketa hori eguneratzea, lurraldearen iraunkortasun ekologikoan, ekonomikoan eta sozialean oinarritutako ongizate-sistema bat sortzeko.

Azken hilabeteetan, Asturias, Galizia, Katalunia, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Aragoi, Andaluzia eta Kanariar Uharteetatik, Portugaletik eta Europako hegoaldeko eremu huts batzuetatik etorritako erakundeek egin dute bat proiektuarekin. Zehazki, honako hauek osatzen dute sarea:

- Asturiasko Erronka demografikorako komisionatua
- Eusko Ikaskuntza
- Asturiaseko Landa Garapeneko Sarea (Reader)
- Aran Haraneko Eskualde Kontseilua. Katalunia
- *Juana de Vega* Fundazioa. Galizia
- Nekazaritzako Familia Eskolen Federazioa (EFA). Galizia



- Lagunako Unibertsitateko Landa Ikasketen *Pedro Molina Ramos* Kultur Katedra. Tenerife
- Europako hegoaldeko biztanle gutxiko eremuen sarea (SSPA Network).
- Rionor erakundea (Red Ibérica Occidental para una Nueva ordenación Rayana).
- *Paulo Freire* Landa Unibertsitatea. Malaga
- Informazioaren eta Komunikazioaren Zentro Teknologikoa (CTIC). Asturias
- Rede das Aldeias do Xisto. Portugal

Erakundeak bat datoz landa eremuaren despopulazioari buruzko kezkarrekin, eta elkarrekin eredu berriak aurkitu eta probatzeko behararekin zein herri txikientzat etorkizuna duten esperientziak trukatzeko behararekin ere. Halaber, lankidetzak-mekanismoak ezarri nahi dituzte, arazo demografikoak dituzten herrientzat bideragarriak diren alternatibak batera aztertzeke eta ikertzeke.

Sarearen lehen bilerak epe ertainerako konpromisoak eta helburuak zehazteko eta agenda komun batean aurrera egiteko balio izan du, bai eta parte hartzen duen erakunde bakoitzak garatzen dituen proiektuak eta lanak ezagutarazteko ere.



NOTA INFORMATIVA

Doce entidades participan en la primera reunión de la red por una nueva economía para las aldeas impulsada por Eusko Ikaskuntza y Asturias

- *La sesión constitutiva define los compromisos y objetivos de trabajo a medio plazo para fomentar nuevos modelos que recuperen los pueblos pequeños como gestores del territorio*
- *Los organismos adheridos proceden de Asturias, Galicia, Cataluña, Castilla La Mancha, Castilla y León, Aragón, Andalucía, Canarias, Portugal y algunas áreas despobladas del sur de Europa*

Donostia-San Sebastián, 17 de marzo de 2021. Eusko Ikaskuntza y el Gobierno de Asturias, a través del comisionado para el Reto Demográfico, han celebrado la primera reunión de la red de entidades por una nueva economía para los pueblos pequeños. En la sesión constitutiva, celebrada de modo telemático, han participado doce organizaciones que trabajarán para impulsar modelos de desarrollo que recuperen las aldeas como unidades gestoras del territorio.

Las entidades promotoras firmaron el pasado mayo un documento que sentó las bases para impulsar acciones a favor de nuevas economías locales, agroecológicas y diversificadas en los pueblos. La idea es volver la mirada hacia la gestión comunitaria de los bienes y recursos que imperó como modelo en las zonas rurales y actualizarla para crear un sistema de bienestar basado en la sostenibilidad ecológica, económica y social del territorio.

En los últimos meses se han sumado al proyecto entidades procedentes de Asturias, Galicia, Cataluña, Castilla y León, Castilla La Mancha, Aragón, Andalucía y Canarias, así como de Portugal y algunas áreas despobladas del sur de Europa. En concreto, forman parte de la red:

- Comisionado para el Reto Demográfico de Asturias.
- Eusko Ikaskuntza.
- Red Asturiana de Desarrollo Rural (Reader).
- Consejo Comarcal del Valle de Arán. Cataluña.



- Fundación *Juana de Vega*. Galicia.
- Federación de Escuelas Familiares Agrarias (EFA). Galicia.
- Cátedra Cultural *Pedro Molina Ramos* de Estudios Campesinos de la Universidad de la Laguna. Tenerife.
- Red de áreas escasamente pobladas del sur de Europa (SSPA Network).
- Asociación Hispano Portuguesa Rionor (Red Ibérica Occidental para una Nueva Ordenación Rayana).
- Universidad Rural *Paulo Freire*. Málaga.
- Centro Tecnológico de la Información y la Comunicación (CTIC). Asturias.
- Rede das Aldeias do Xisto. Portugal.

Las entidades comparten su preocupación sobre el despoblamiento rural y coinciden en la necesidad de encontrar y ensayar nuevos modelos e intercambiar experiencias con futuro para los pequeños pueblos. También pretenden establecer mecanismos de colaboración con el fin de explorar e investigar de forma conjunta alternativas viables para las localidades con problemas demográficos.

La primera reunión de la red ha servido para definir los compromisos y objetivos a medio plazo y avanzar en una agenda común, así como para dar a conocer los proyectos y trabajos que desarrollan cada una de las entidades participantes.